

berria



**Dolu nazionala
betetzen ari dira
Hegoafrikan, Desmond
Tuturen heriotzarengatik**
MUNDUA • 14

Gabonetako azken ospakizunei mugak jarriko dizkiete administrazioek

Nafarroak baimena eskatu die epailei ostalaritza 01:00ean ixteko eta gehienez hamar laguneko muga ezartzeko • Jaurlaritzak gaur jakinaraziko ditu neurriak • Iparraldean telelana egitera behartuko dute

EUSKAL HERRIA • 4-5



MINAREN ISTORIO BAT

Josi Alvaradok idatzi eta Arantxa Iturbek itzulitako 'Tarara' antzezlanaren emango du Hika-k urtarrilaren 15etik aurrera.

KULTURA • 23

GORKA RUBIO/FOKU

Legea osatzeko oinarriak josteko lana, abian

ELKARRIZKETA

Eneritz Garro Larrañaga, Mondragon Unibertsitateko irakaslea: «Helburua baldin bada euskaraz ikastea, eta hori argitu behar dugu lehenik, indartu behar duguna hizkuntza gutxitua da»

SERIEA •

HEZKUNTZA ITUNERAKO BIDEA (I)

HARIAN • 2-3

Sexu erasoak. Salaketak Berriainen eta Barakaldon

EUSKAL HERRIA • 8



Barakaldon atzo iluntzean egindako elkarretaratzea. MARISOL RAMIREZ / FOKU

Argentina zartatu zuen hondamendia

Hogei urte bete dira ordura arte ikusi gabeko krisi ekonomiko eta soziala piztu zela. Ondorioek hortxe diraute.

MUNDUA • 12-13

Ekudorko Imbabura sumendia, inguruko lurren zaindaria

SERIEA •

BIDAIA ETA MENDI LEHIAKETA (I)

BIZIGIRO • 30-31

Norberaren baitako lorategia

Hika konpainiak 'Tarara' antzezlanarekin estreinatuko du urtarrilaren 15ean • Josi Alvaradok idatzi zuen, eta Arantxa Iturbek euskaratu du • Tratu txarrez, desberdintasunaz eta barkamenaz ari da, besteak beste

Andoni Imaz Astigarraga

Mailaka banatu dute agertokia. Aldapa luze batek zeharkatzen du alderik alde, eta eskailera batzuek bereizten dituzte guneak. Piano bat dago bazter batean. Eta arrosak, lurrian eta atze-oihalean. Hika teatro konpainiak sakonetik sortu du *Tarara* antzezlanarekin, azaletik baino gehiago, eszenografia soil horrekin. Urtarrilaren 15ean estreinatuko dute, Erretereriako Lekuona fabrikari (Gipuzkoa). Joan den astean, entsegu ireki bat egin zuten Astigarragako Erribera kultur gunean (Gipuzkoa), eta zenbait BERRIA lagunek saioa ikusteko aukera izan zuten.

Rosa protagonista bitan banatutako pertsonaia bat da, bi aktorek antzeztua. Batak bestearen erritmoan dantza egiten du batzuetan, eta bata bestearen itzal bihurtzen da ondoren. Biolina jotzen ikasten ari den neskatila bat da, 1970eko hamarkadako Bilbon; zahar etxera ama bisitatzerakoan emakumea, 1990eko urteetan. Izan ere, amarekin duen harremanean sakondu beharko du umetan gertatutakoa ulertzeko, sute misteriosu bat argitzeko, iraganeko orbainak garbitzeko. «Batzuetan, emakume batek egin behar duena egin behar du».

Iluntasun horren erdian, distira egiten du Yasminek. Prostituzioan eta gaueko ikuskizunetan aritzen da, eta gakoia izango da ama-alaben gorabeherak ulertzeko. Haurrei egindako abusuei, tratu txarrei, desberdintasunari eta barkamenari buruzko istorio bat da *Tarara*, besteak beste.

Agurtzane Intxaurraga zuzendariak oharrez bete zuen koadernoan entseguan. «Horretarako zen. Eta jendearekin egoteko, noski». Saioa amaitu eta gero, lantalde osoak solasaldi bat izan zuten ikusleekin. Intxaurragak eskatu zuten ardo batekin baleude bezala hitz egiteko, eta, hala, ikusle batek esan zien ez arduratzeko biolinaren mikrofonoak ez zuelako funtzionatu, soinu anplifikatu gabe jotzeak balio izan zuelako pertsonaiaren aldartea islatzeko, eta beste batek kontatu zuen hasierako pasarteak «La Palancako» girora garraiatu zuela.



Artetxe, Fornieles, Errasti eta Gurrutxaga, *Tarara* antzezlanaren pasarte batean, Astigarragan. GORKA RUBIO / FOKU

Antzezlanarekin Bilbon girotu badute ere, ez du han jatorria. Josi Alvarado valentziarrak idatzi zuen *Tarara*, eta SGA Eren I. Ana Dios-dao saria irabazi zuen 2019an. Sari hura eman zuen epaimahai-kidea zen Intxaurraga. Egilea-

asmaten duen berak kontatu nahi duena esaten». Pertsonaia batzuk moldatu zituen, aktore gutxiagorekin egin ahal izateko, eta Rosarena bi aktoreen artean banatu zuen. «Dramaturgiak oso ondo funtzionatu zuen; denok gustura geratu ginen».

Zuzendari lanean, bi erronka nagusi izan ditu Intxaurragak: pertsonaia beraren rola jokatzeko duten aktoreen lana uztartzea, eta testua moldatzea. Izan ere, dramaturgia sortu behar izan zuen testu «poetiko» batentzat. «Esan zidan: 'Ez galdetu, egin'. Askatasun osoa izan dut».

Jatorrizko testua irakurri zuenean burura etorri zitzaizkion irudietako bi dira arrosa igokariak eta orein zauritua, eta biak ageri dira antzezlanean. «Obran, testu lirikoa eta kaleko hizkera uztartzen dira; egileak esaten du Lorcaen lirismoak inspiratu zuela, eta 'Almodovarren Technicolorra' ere aipatzen du. Uste dut bitasun hori oso ondo adierazi duela testuan, eta baita musikan ere,

klasikoa eta herrikoia nahastuta».

Arantxa Iturbek euskaratu du lana, eta Ikerne Gimenez aritu da eszenografian eta jantzi zitegian. Sei aktore ariko dira agertokian, nahiz eta bederatzik osatzen duten taldea denera, batzuetan txandaka ariko direlako, euskaraz eta gaztelaniaz emango baitute obra. Tania Fornieles, Jurdana Otxoa, Kepa Errasti, Eneritz Artetxe, Itziar Ituño, Jose Cruz Gurrutxaga, Adrian Garcia de los Ojos, Iñar Sastre eta Sandra Ferrus dira.

«Goatzeko lan bat»

Otxoaren biolinarena da antzezlaneko soinu nagusia, Garcia de los Ojosek jotako pianoarekin batera –Sastrek ordezkatuko du saio batzuetan–. Batzuetan kontzertu baten gisako piezak joko ditu, eta istorioari lagunduko dioten askotariko hotsak egingo ditu tarteka. Otxoa lehen aldiz aritu da antzerkian, eta «sekulako esperientzia» izan da harentzat.

Errastik jokatu du Yasminen rola. «Izen artistikoa du Yasmin, eta azkenerako aldarrikatzen du bere benetako izena izan daitekeela. Argitasuna emango du istorio

ilun honetan, eta babes handia izango da gainontzeko pertsonaia izateko», kontatu du. «Pertsonaia indar handia du, eta eroso sentitu naiz harekin; goatzeko lan bat izan da». Lanari beste kolore bat emateko asmoz, Azkoitiko (Gipuzkoa) euskarari ariko da euskarazko bertsioan, eta Granadako (Espainia) hizkeran gaztelaniazkoan.

Euskarazko bertsioan, Fornieles antzeztuko du Rosa –gaztelaniazkoan, Ferrusek–. Metafora baten bidez azaldu du haren bilakaera: «Rosak bere lorategira joan behar du, lurra mugitzera, sustriak aurkitzeko. Amarengana joaten da, gogoratzen ez dituen oroitzapenak argitzeko asmoz». Zorritz betetako arrosak sendatu beharko ditu bere buruaren jabe izateko. Fornielesentzat gogorra izan da antzezlanarekin prestatzeko prozesua, denbora gutxi izan baitu lanerako. «Irakurri nuenetik sentitu nuen nire bizitzarako lagungarria izango zela. Oso hurbil sentitu nintzen Rosarengandik. Gogorra izan da, hasieran ezin nuelako nigandik bereizi; hori egitea lortu dudanean, askoz gehiago gozatu dut».



Obran, testu lirikoa eta kaleko hizkera uztartzen dira; egileak Lorca eta Almodovar aipatzen ditu»

Agurtzane Intxaurraga
Zuzendaria

«Gogorra izan da, hasieran ezin nuelako Rosa nigandik bereizi; hori egitea lortu dudanean, askoz gehiago gozatu dut»

Tania Fornieles
Aktorea

rekin harremanetan jarri zen saria banatu eta gero, nor zen jakin zuenean, eta hark eskatu zion zuzendariaren egitekoak ziren irakurraldi dramatizatuak. «Ez zuen nire lana ezagutzen, baina, testuari buruz hizketan egon ginenez, ni aukeratu ninduen. Pentsatu nuen: 'Ea orain